

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 1673/2006/EE erabakia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko urriaren 24koa, Europako normalizazioaren finantziarioari buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*DECISIÓN No 1673/2006/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 24 de octubre de 2006, relativa a la financiación de la normalización europea*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 315/9 de 15/11/2006*)

1673/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2006ko urriaren 24koa,

Europako normalizazioaren finantziarioari buruzkoa

I

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaren –bereziki
Tratatuaren 95. artikulua eta 157. artikuluan 3.
paragrafoa– aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen
irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari
jarraiki ⁽²⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Europako normalizazioa borondatezko ekintza da, normalizazioko arauak eta beste produktu batzuk ezarri nahi dituen alderdi interesatu orok eta alderdi interesatu ororentzat egindakoa, beren beharrei erantzuteko. Erakunde hauek ezartzen dituzte normalizazioko produktuak: Europako Normalizazio Batzordeak (ENB), Normalizazio Elektroteknikorako Europako Batzordeak (Cenelec) eta Telekomunikazioak Estandarizatze Europako Institutuak (ETSI da ingelesezko akronimoa). Erakunde horiek I. eranskinean azaltzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/34/EE Zuzentarauan, 1998ko ekainaren 22koan, arau eta erregelamendu teknikoari buruz eta informazio gizartearen zerbitzuen arauari buruz informazio-prozesu bat ezartzen duen horretan ⁽³⁾. Hemendik aurrera erakunde horiei «normalizazioko erakunde europarrak» deituko zaie.

(2) 98/34/EE zuzentarauak aurreikusten du, haren bidez sortutako Batzordeari kontsulta egin ondoren, Batzordeak normalizazio-eskakizunak egin diezazkiela normalizazioko erakunde europarrei. Lankidetzarako Zuzentaru Orokorrek, 2003ko martxoaren

28koek ⁽⁴⁾ arautzen dituzte erakunde horien arteko harremanak, bai ENB, Cenelec eta ETSI erakundeen artekoak, bai Merkataritza Askearen Europako Elkartarekikoak ere, normalizazio europarraren aldeko lana egiten duen heinean.

(3) Beharrezkoa da Erkidegoak normalizazio europarraren finantziarioaren parte hartzea, ikusita Erkidegoko legeriaren eta politikaren alde lan egokia egiten duela. Alde batetik, Europako normalizazioak barne-merkatua hobeto funtzionatzen eta finkatzen laguntzen du, batez ere, osasuneko, segurtasuneko, ingurumeneko eta kontsumitzaileen babeserako sektoreetan, «ikuspegi berriko» zuzentarauari esker. Gainera, garraio-arloan, esaterako, elkarrenginkortasuna sustatzen du. Bestetik, Europako normalizazioak enpresen lehiakortasuna hobetzen lagunduko du, bereziki, ondasunen eta zerbitzuen zirkulazio librea, komunikazio sareen eta bideen elkarrenginkortasuna eta teknologien garapena, besteak beste, informazioaren teknologiena. Horren ondorioz, komeni da Erabaki honek finkatzea nola finantzatuko diren Europako normalizazio-jarduerak, informazioaren teknologiei buruzkoak eta telekomunikazio teknologiei buruzkoak; hain zuzen ere, batez ere Kontseiluaren 87/95/EE Erabakiak, 1986ko abenduaren 22koak, informazio- eta telekomunikazio-teknologiak normalizatzeari buruzkoak ⁽⁵⁾, arautzen du hori.

(4) Beharrezkoa da oinarri juridiko esplizitu, oso eta zehatz bat izatea, Europako Erkidegoak Europaren normalizaziorako beharrezko jarduera guztiak finantza ditzan, politikak praktikan jarri ahal izateko eta legeria aplikatu ahal izateko.

(5) Enpresa txikiak eta ertainak Europako arauak aplikatzeko moduan izango direla bermatu behar da, batez ere, enpresa txikiak, mikroenpresak eta artisaunenpresak. Horren ondorioz, garrantzitsua da arau horiek ematea eta egokitzea aipatu enpresen ezaugarriei eta inguruneari erreparatuta.

¹ EO C 110, 2006.5.9koa, 14. or.

² Europako Parlamentuaren irizpena, 2006eko maiatzaren 17koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko irailaren 18koa.

³ EO L 375, 1998.7.21koa, 37. or. 1882/2003. 2003ko atxikitze Aktak aldatu zuen Zuzentaru.

⁴ EO C 220, 2003.4.16koa, 7. or.

⁵ EO L 36, 1987.2.7ekoa, 1. or. Azken buruan 807/2003 Erregelamenduak [EE] (EO L 122, 2003.5.16koa, 36. or.) aldatu zuen Zuzentaru.

- (6) Erkidegoaren finantziazioak honako helburu hauek izan behar ditu: normalizazio-arauak edo bestelako normalizazio-produktuak ezartzea; horiek enpresek erabil ditzaten erraztea, eta, horretarako, Erkidegoko hizkuntza ofizialetara itzultzea; normalizaziorako sistema europarraren kohesioa indartzea; eta Erkidegoko arauak gardenak eta bidezkoak izango direla bermatzea, Europar Batasuneko lurraldeko merkatu-eragile guztientzat. Helburu horiek betetzea ezinbestekoa izango da, bereziki, normalizazio-arauak erabili behar badira Erkidegoko legeria betetzeko.
- (7) Aurrekontu Agintaritzak urtero ezarri beharko ditu Europako normalizazio-jardueren esleitutako kredituak, dagokion finantza-esparruan adierazitako finantza-zuzkiduraren mugak betetzeko; hala, Batzordeak erabaki bat hartu behar du urtero, diru-zenbatekoak eta, beharrezkoa bada, jarduera-mota bakoitzeko kofinantziazioaren gehieneko ehunekoak finkatzeko.
- (8) Finantziario-mota desberdinak aurreikustea komeni da, aintzat hartuta, Europako normalizazioaren jardura-eremua zabala dela Erkidegoko politika eta legeriaren babeserako, eta, halaber, normalizazioko jardura-mota ugari daudela. Oro har, laguntzek ez dute zertan izan normalizazio-erakunde europarrentzako proposamenen deialdirik; hala ezarrita dago, batetik, Europako Erkidegoan aurrekontu orokorrari aplikatu dakioken Erregelamendu finantzarioa onartzen duen Kontseiluaren 2002ko ekainaren 25eko 1605/2002 Erregelamenduaren (EE, Euratom), 110. artikuluko 1. paragrafoko bigarren idatz-zatian ⁽¹⁾ (hemendik aurrera "finantza-erregelamendu" deituko zaio), eta bestetik, 1605/2002 Erregelamendua garatzeko arauak buruzko Batzordearen 2002ko abenduaren 23ko 2342/2002 Erregelamenduaren (EE, Euratom), 168. artikuluko 1. paragrafoaren d) puntuan ⁽²⁾.
- (9) Gainera, xedapen horiek aplikatu behar zaizkie erakundeei, nahiz eta 98/34/EE Zuzentarauko I. eranskinaren arabera normalizazio-erakunde europarrak ez izan, baldin eta oinarri-egintza baterako agindua jaso badute eta normalizazio europarrari laguntzeko prestakuntza-lan bat egitea eskatu bazaie, beste normalizazio-erakunde europarrek batera.
- (10) Estatu kideei bultzada bat eman nahi zaie, behar bezala berma dezaten beren lurraldean normalizazio-lanen finantziazioa.
- (11) Bestalde, normalizazio-erakunde europarrek Erkidegorako jarduerak etengabe sustatzen dituzten heinean, komeni da idazkaritza nagusi eraginkorrak sortzea. Horretarako, Europaren interes orokorren alde egiten duten erakunde horiei laguntzak emateko modua izan behar du Batzordeak, degresibitatearen printzipioa aplikatu behar izan gabe, funtzionamendu-laguntzen kasuan. Printzipioa Erregelamendu finantzarioaren 113. artikuluan, 2. paragrafoan azaltzen da. Normalizazio-erakunde europarrek behar bezala funtziona dezaten, beharrezkoa da, gainera, beren kide nazionalen normalizazioko sistema europarrentzako finantza-zergak ordaintzea.
- (12) Normalizazio-jardueren finantziarioak bere baitan jaso behar ditu prestakuntza-jarduerak edo normalizazioko arauak edo bestelako normalizazio-produktuak ezartzeko jarduerak. Batez ere, honako jardura hauek izango dira: ikerketa-lanak; lege-baliabideak sortzeko prestakuntza-dokumentuak, baliabide legegileak lortzeko; laborategien arteko saiakerak; eta arauen onarpenak edo ebaluazioak. Gainera, Europaren eta nazioartean normalizazioa sustatzearekin batera, barne hartu beharko dira hirugarren herrialdeekin egindako lankidetzako eta laguntza teknikoko programak. Merkatuetarako sarbideak hobetzeko eta Europar Batasuneko enpresen lehiakortasuna indartzeko, komeni da aurreikustea beste erakunde batzuei laguntzak ematea, proposamen-deialdien bidez edo, hala behar izanez gero, kontratuak esleitzu.
- (13) Batzordeak eta normalizazio-erakunde europarrek elkartzeko-hitzarmenak sinatu ohi dituzte, Erregelamendu finantzarioari jarraituz, normalizazio-jardueren finantziarioa xede duten finantziario-arauak eta arau administratiboak ezartzeko. Europako Parlamentuari eta Kontseiluari aipatu hitzarmenen edukiaren berri eman behar zaie.
- (14) Kontuan izanda normalizazio-lanen zehaztasuna eta, bereziki, alderdi interesatuek normalizazio-prozesuan parte-hartze handia izan dutela, komeni da, Erkidegoko laguntza jaso behar duten normalizazio-arau europarrak edo bestelako produktuak egiteko jarduerak kofinantzatzeko aukeren baitan, gauzez ordaintzeko aukera onartzea; hala nola, adituak eskura jartzea.
- (15) Erabaki hau eraginkortasunez aplikatuko dela bermatzeko, komeni da irizpen-txostenak egiteko aukera izatea, batik bat, kontu-

¹ EO C 248 E, 2002.9.16koa, 1. or.

² EO L, 357, 2002.12.31koa, 1. or. 1248/2006 Erregelamenduak (EO L 227, 2006.8.19koa, 3. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

ikuskaritzan eta finantza-kudeaketan, bai eta erabakia betetzeko administrazio-laguntzen baliabideetara jo ahal izatea ere; halaber, egoki da aldizka ebaluatzea Erkidegoko finantziarioa jasoko duten jarduerak egokiak diren ala ez, haien erabilgarritasuna eta eragina bermatzeko.

- (16) Era berean, komeni da neurriak hartzea, alde batetik, iruzurrak eta irregulartasunak saihesteko, eta bestetik, behar bezala ordaindu ez diren funtsak berreskuratzeko, arau hauek ezarritakoa betez: Kontseiluaren 1995eko abenduaren 18ko 2988/95 Erregelamendua (Euratom, EE), Europako Erkidegoaren finantza-interesak babesteari buruzkoa ⁽¹⁾; Kontseiluaren 2185/96 Erregelamendua, 1996ko azaroaren 11koa, iruzurrak eta irregulartasunen aurka Batzordeak Europako Erkidegoaren finantza-interesak babesteko egiten dituen *in situ* kontrolei eta egiaztapenei buruzkoa ⁽²⁾; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko maiatzaren 25eko 1073/1999 Erregelamendua (EE), Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAFek) egindako ikerketei buruzkoa ⁽³⁾.

HONAKO ERABAKI HAU HARTU DUTE:

1. artikulua

Helburua

Normalizazio europarra finantzatzeko Erkidegoaren kontribuzioa arautzen du erabaki honek, Erkidegoko politika, neurri, jarduera eta arau berariazkoak aplikatzen laguntzeko asmoz.

2. artikulua

Erkidegoaren finantziarioa jaso dezaketeko erakundeak

Erkidegoko finantziarioa jaso ahal izango dute 98/34/EE Zuzentarauaren I. eranskinean azaltzen diren normalizazio-erakunde europarrek, erabaki honen 3. artikuluan xedatutako jardueretarako.

Hala ere, beste erakunde batzuk ere eskuratu ahal izango dute Erkidegoaren finantziarioa, 3. artikuluko 1. paragrafoaren b) idatz-zatian Europaren normalizaziorako xedatutako prestakuntza- edo laguntza-lanak egiteko, bai eta 3. artikuluko 1. paragrafoaren f) idatz-zatian xedatutako programak egiteko ere.

3. artikulua

Erkidegoaren finantziarioa jaso dezaketeko normalizazio-jarduerak

1. Normalizazio europarreko jarduera hauek finantza ditzake Erkidegoak:

- a) Erkidegoko legeria aplikatzeko eta politikak aurrera eramateko beharrezkoak diren normalizazioko arau europarrak eta bestelako produktuak sortu eta berrikustea.
- b) Normalizazio europarrari buruzko prestakuntza-lanak edo lan-osagarriak egitea, hala nola, ebaluazioak, konparazio-azterketak, ikerketak, laborategiko lanak, laborategien arteko saiakerak eta onespenaren ebaluazio-lanak;
- c) Normalizazioko erakunde europarren idazkaritza nagusietako jarduerak, hala nola, politikak garatzea, normalizazio-jarduerak koordinatzea, lan-teknikoak prozesatzea eta alderdi interesatuei informazioa ematea.
- d) Normalizazio-arauen edo normalizazioko produktuen kalitatea egiaztatzea, bai eta horiek Erkidegoko legeriarekin eta politikarekin bat datozela egiaztatzea ere.

e) Beharrezkoa izanez gero, normalizazioko arau europarren edo bestelako normalizazio-produktuen, Erkidegoko politikak eta legeriak babesteko erabiltzen direnen, itzulpena egitea. Itzulpenak normalizazioko erakunde europarren laneko hizkuntza ez diren Erkidegoko hizkuntza ofizialetara egingo dira. Itzulpenez gainera, azalpen-dokumentuak egitea, arauak interpretatzea eta sinplifikatzea, erabilpen-gidak edo praktika hobetoetarako gidak egitea finantza daitezke;

f) hirugarren herrialdeekin batera lankidetzako eta laguntza teknikoko programak gauzatzeko jarduerak, eta normalizazioko sistema europarra eta Europako arauak sustatzeko eta balio-emateko jarduerak, Erkidegoko nahiz munduko alderdi interesatuen artean.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoko a) idatz-zatian aipatutako jarduerak Erkidegoko finantziarioa jaso dezaten, beharrezkoa da aurretiaz kontsultatzea 98/34/EE Zuzentarauaren 5. artikuluan bidez sortutako Batzordean, zer eskaera aurkeztu behar zaizkien normalizazioko erakunde europarrei.

4. artikulua

Finantziarioa

Aurrekontu Agintaritzak urtero zehaztuko ditu Erabaki honetan azaltzen diren jardueretarako kredituak, finantza-esparruaren mugen baitan.

¹ EO C 312, 1995.12.23koa, 1. or.

² EO L 292, 1996.11.15koa, 2. or.

³ EO L 136, 1999.5.31koa, 1. or.

5. artikulua

Finantziazio-motak

1. Erkidegoko finantziazioak honako hauen bidez emango dira:

a) proposamen-deialdirik egin behar izan gabe, laguntzak emanez, alde batetik, normalizazio-erakunde europarrei, 3. artikuluan aipatutako jarduerak egiteko, eta, bestetik, Erregelamendu finantzarioaren 49. artikuluari jarraiki, agindua oinarritzko egintza bidez jaso duten erakundeei, erabaki honetako 3. artikuluko, 1. paragrafoko b) idatz-zatian aipatutako lanak egiteko, normalizazio-erakunde europarrekin batera.

b) proposamen edo kontratazio publikoko prozesuen deialdien ostean, beste erakunde batzuei laguntzak emanez, normalizazio-erakunde europarrekin batera, 3. artikuluko 1. paragrafoaren b) idatz-zatian aipatutako lanak egiteko, edo 3. artikuluko, 1. paragrafoaren f) idatz-zatian aipatutako programak egiteko.

2. Era berean, 3. artikuluko 1. paragrafoaren c) idatz-zatian azaltzen diren normalizazio-erakunde europarretako idazkaritza nagusien jarduerak finantzatu dira, ekintzetarako laguntzak emanez edo funtzionamendu-laguntzen bidez.

Funtzionamendu-laguntzak berritzen badira, ez dira automatikoki murriztuko.

3. Batzordeak erabakiko ditu 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako finantziazioak nolakoak izango diren, bai eta, beharrezkoa izanez gero, jarduera-motaren arabera gehieneko ehuneko zenbatekoak ere. Batzordeak horri buruz erabakitzen duena argitaratu egingo da.

4. Laguntzei buruzko hitzarmenek baimena eman ahal izango dute onuradunaren gastu orokorrak, oroharreko prezioan, onartzeko, eta zenbateko horren gehieneko muga diruz lagundu daitezkeen akzioen zuzeneko kostuen %30 izango da, kasu honetan izan ezik: onuradunaren zeharkako kostuak Europar Batasuneko aurrekontu orokorretik finantzatutako funtzionamendu-laguntzaz estali badira.

5. Gauzez ordaindutako kofinantziazioak onartuko dira. Gauzez egindako ordainketak balioztatzeko, 2343/2002 Erregelamendua (EE, Euratom) garatzeko arauetan aurreikusitako baldintzak beteko dira.

6. Elkarketako hitzarmen-esparruetan zehaztuko dira lankidetzarako helburu komunak eta, normalizazio erakunde europarrei jarritako administrazio- eta finantza-baldintzak.

Hitzarmenen izenpetzaile izango dira, alde batetik, Batzordea, eta bestetik, normalizazio-erakunde europarrak, 2342/2002 Erregelamenduan (EE, Euratom) xedatutakoari jarraiki. Europako Parlamentuari eta Kontseiluari hitzarmenen burutzearen berri emango zaie.

6. artikulua

Kudeaketa eta jarraipena

1. Normalizazio-jarduerak finantzatzeko Aurrekontuen Agintaritzak ezarritako kredituak honako administrazio-gastu hauek ordaintzeko ere erabili ahal izango dira: prestakuntza, jarraipena, kontrola, irizpenak eta ebaluazioa; betiere, beharrezkoak badira erabaki honetako helburuak lortzeko. Bereziki, kredituak erabil daitezke azterketak, bilerak, informazio- eta argitalpen-ekintzak eta informazioa trukatzeko informatika-sareekin lotutako gastuak ordaintzeko, eta administrazio-laguntzan edo laguntza teknikoan izandako bestelako gastuak estaltzeko, Batzordeak horiek baliatu nahi baditu normalizazio-jarduerak egiteko.

2. Batzordeak ebaluatuko du Erkidegoko finantziazioa jasotzen duten normalizazio-jardueren egokitasuna, Erkidegoko politika- eta legeria-beharrak kontuan hartuz; eta bost urtez behin, gutxienez, aipatu ebaluazioen emaitzen berri emango dio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari.

7. artikulua

Erkidegoaren finantza-interesen babesak

1. Batzordeak Erkidegoko finantza-interesak babestuko ditu erabaki honi jarraiki finantzatutako jarduerak egitean, iruzurra, ustelkeria eta legez kanpoko beste jarduera batzuk saihesteko neurriak aplikatuz. Gainera, kontrol eraginkorrak egingo ditu eta zilegi ez den moduan ordaindutako zenbatekoak berreskuratuko ditu. Era berean, irregulartasunik hautemanez gero, zigor eraginkorrak, proportzionalak eta disuasiozkoak aplikatuko ditu, arau hauek betez: 2988/95 Erregelamendua (EE, Euratom), 2185/96 Erregelamendua (Euratom, EE) eta 1073/1999 Erregelamendua (EE).

2. Erabaki honen bidez finantzatutako Erkidegoko jarduerari dagokienez, 2988/95 Erregelamenduari (EE, Euratom), 1. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako irregulartasun-kontzeptuak esan nahi du urratu egin direla Erkidegoko zuzenbideko xedapenak edo eragile ekonomiko batek, ekintzen bidez edo ez-egiteren batengatik, ez dituela bete kontratu-betekizunak; betiere, kalteak jasan baditu edo kalterik jaso badezake Europar Batasuneko aurrekontu orokorrak edo Erkidegoak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

administratutako aurrekontuek, bidegabeko gastuen ondorioz.

3. Erabaki honetan oinarrituta sortzen diren hitzarmenek eta kontratuek jarraipen eta kontrol finantzario bat aurreikusiko dute. Jarraipen eta zaintza hori Batzordeak egingo du, edo hark baimendutako ordezkariaren batek; halaber, Kontuen Auzitegiak auditoriak egingo ditu, eta auditoria horiek, beharrezkoa bada, *in situ* egindakoak izango dira.

8. artikulua

Indarrean jartzea

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit hamar egunera jarriko da indarrean Erabaki hau.

Estrasburgon eginga, 2006ko urriaren 24an.

Europako Parlamentua Kontseilua

Presidentea Presidentea

J. BORRELL FONTELLES eta P. LEHTOMÄKI
L